

Giro ederra eta eguraldia lagun aurten

■ BTT Trabesiaren bigarren edizio honetan haurrentzako ibilbide txiki bat antolatu zuten

Goizeko bederatzietan puntuan, atera ziren II. BTT Trabesiako txirrundulariak. Aurten 271 lagunek hartu dute parte eta ia ez bezala, eguraldia lagun izan zuten.

Antolatzaileek adierazi ziguten moduan, oso gustura geratu dira izandako parte-hartzearekin.

Andatzen galduta

Eguraldia lagun izan zuten, baina bidea ez, izan ere antolakuntzako kideek larunbat goizean bidea markatu bazuten ere, badirudi norbaitek marka horiek kendu egin zituela eta ondorioz txirrundulari batzuk ibildearekin nahastu egin ziren.

Bi ibilbide zeuden, bata 20 km-koa eta bestea 40koa. Txirrundulari bat baino gehiago nahastu zen. Helmugara lehenak iritsi zirenak, adibi-

dez, ibilbide luzea egin nahi eta motza egin zuten.

Haurrentzako ibilbidea

Lehenengo aldiz antolatu dute aurten haurrentzako ibilbidea. Guztira 22 haurrek hartu zuten parte, 6 eta 12 urte bitartekoak. Parte-hartzaile guztiak Bazpi Txirrundulari Taldeko partaideak ziren eta ederki gozatu zuten ibilbidean.

Parte-hartzaile guztiak kamiseta bat eraman zuten oroigarri, eta gainera dortsalaren zenbakiarekin zozketa egin zuten eta batzuk oparirekin bueltatu ziren etxera. Gainera bizikleta garbitzeko aukera ere izan zuten.

Indarrak berritzeko berriz, antolatzaileek txistorra pintxoak, tortilak, pastak, gailetak, salda beroa eta edariak banatu zizkieten parte-hartzaile guztiei. •



Arg.: J. Zatarain



Goian txirrundulariak Azkorten, eta behean, haurrak ibilbidea hasi aurretik. Argazki gehiago www.txintxarri.info helbidean.



XII. Jardunaldi Internazionalistak larunbatean ospatutako afariarekin amaitu dira /3

GIZARTEA /2

Presoen aldeko itxialdia egingo dute apirilaren 24an San Pedro parrokian, bertan hainbat hitzaldi eskainiko dira



Udaz gozateko aukera ederra dute txikiak eta gazteek Tkakunek antolatutako egitasmoekin /4-5

Salesianos Urnieta Salesiarrak

BATXILERGOA

LANBIDE HEZIKETA

Grafikagintza, Mekanika, Elektrizitatea, Elektronika
Artes Gráficas, Mecánica, Electricidad, Electrónica

zatoz ven

giro lasai eta arduratsuan ikasi nahi baduzu...

ikastetxea ikusteko aukera
puertas abiertas

apirilak 24 - 10:00
24 de abril - 10:00

www.salesianosurnieta.com

Itxialdia presoen alde 24an elizan

- Pertsona ezagunek hitzaldiak eskainiko dituzte San Pedro Parrokian
- Herriko presoen iritziak irakurriko dira ■ Lauk zigorra beteta dute

TXINTXARRI

Herriko presoen alde hilaren 24tik 25erako gaua San Pedro parrokiaren pasatuko dute zenbait lasarteoriatarrek eta herritarrei ekimenaren parte hartzeko deia luzatu diete. Gau berezia izango da, batetik presoek ekitaldi honetarako propio idatzitako testuak irakurriko dira eta bestetik hainbat hitzaldi, bideo emanaldi eta beste ekitaldiz osatutako egitarau zabalburutuko da.

Apirilaren 24ko itxialdiaren bultzatzaileek adierazi digutenez, euskal preso politikoei azken hilabeteotan burutzen ari diren borrokaldiri erantzungo dio itxialdiak; borrokaldi horrekin bat egin eta elkartasuna adierazteaz gain, herrian gaia astindu nahi dute.

"Azken urteotan, herrian, presoen egoera isil samar egon da eta elkartasuna zigortzen ari dira. Itxialdian bertan parte hartuko dute presoek, fisikoki ezingo dute noski, baina aukera eman zaie herriko preso guztiei eskutitz baten bidez, euren ekarpenak egin ditzaten. Besteak beste, herriko presoek idatzitako testuak irakurriko dira".

Egitarau sendo eta zabalera prestatu dute: larunbateko arratsaldeko 20:00etatik igandeko goizeko 8:00etara besteak beste, Iñaki Egaña, Gotzon Garmendia, Iñaki Soto eta Iñaki Gil de San Vicentek emango dituzte hitzaldiak. Gau osoko egitarauan bideoak ere emango dira.

Antolatzaileek herritarrak animatu nahi dituzte, parrokiaren gaua pasa dezaten hitzaldietan parte hartuz. Gainera euren ekarpenak egiteko aukera ere izango dute, hurrengo egunean bertan entzundako iritzi guztiak laburbilduko



Apirilaren 24tik 25era gaua elizan pasa eta presoek elkartasuna adierazteko deia luzatu dute.

dituen komunikatu bat ateratzeko asmoa baita.

Elizan aspaldi bezela

Itxialdia egiteko parrokia ez da kasualitatez aukeratu: "Esanguratsua da Euskal Herrian errepresioaren garai gogorrenetan elizak izan zirela babesleku garrantzitsuenak, eta gaur egun ere egoerak horretara bideratu gaitu, eliza babesleku bihurtzera alegia. Presoak aipatzea bera kriminalizatu egin da, presoek elkartasuna adieraztea momentu honetan erabat ilegala da. Elizak aukera eman digu bertan burutzeko eta bertan burutuko dugu. Herrira irekitzeko modu bat ere bada" adierazi digute ekimenaren bultzatzaileek.

Bestalde, presoek beraiek izan duten harrera ona aipatu dute. "Euren eskutitzetan esker ona adierazi dute, herrian horrelako ekitaldi bat antolatzeari. Babesa emango zaie, beraiek izan dira itxialdiaren berri izaten lehenak eta ekarpen zuzena egiteko aukera dute. Hori guztia beraientzat garrantzitsua izan da".

Presoak borrokan

Une honetan Lasarte-Oriako 13 presoetatik bost daude borrokan. Txandakako gose grebak eta borrokaldia egiten ari dira presoak, zigorra beteta duten presoak eta gaixo daudenak kaleratzeko, presoak bizi ziren herri ondoko kartzelatara gerturatzeko eta senideen aurkako kontrol, miaketa

eta beste tratu desegokiak bertan behera uzteko eskatuz. Hiru multzotan banatu dituzte kartzela guztiak eta borrokaldian dauden kartzelek lau hila-beteko txanda betetzen dute.

Lasarte-Oriako kasua berezia da espetxealdi luzea bete duten zenbait presori zigorra jada beteta zutenean Parot doktrina aplikatu zaielako. Hain juxtu lau preso dira egoera horretan, Ina, Niko, Txurdi eta Mitxel. Laurek 23 urte bete dituzte kartzelan.

Urriaren kartzelan 23 urte bete dituen Santi Arrospidek zigorra bete gabe dauka baina jada Parot doktrina ezarri diote berari ere. Juankarrek 21 urte bete ditu eta Xabi Gallaga, Ibon Iradi, Pello eta Aitzol Iriondok jada espetxealdi luzerako bidea hasia dute.

Datorren larunbatean, hilaren 24an afari merienda eta elkarretaratzeko batekin hasiko da itxialdia arratsaldeko 20:00ak eta 21:00ak bitartean, ordu horretan sartuko dira elizara eta hurrengo goizeko 8:00etan amaituko da itxialdia. •

PARTAIDETZA

Kudeatuz-en bilera Osasun Zentro berrian egingo da

Apirilaren 22an, ostegunean Foru Aldundiak sustatutako Kudeatuz ekimenaren hirugarren bilera izango da Lasarte-Orian.

Orain arte, Plazaola parkeko eraikuntzaren inguruak bilerak Manuel Lekuona kultur ordezkan izan badira ere, oraingoan leku aldaketa dago.

Ostegunean, arratsaldeko 18:30etan, osasun zentro berriko hirugarren solairuan dagoen balio anitzeko gelara joan beharko du bilera parte hartu nahi duen orok. •

LANAK

Trafiko aldaketak Oriabianchi eremuko pabilioitan

Saneamenduko interzeptore orokorreko lanekin jarraituz, datorren asteazkenean, apirilak 21, Oriabianchi eremuko pabilioitan lanean hasiko dira.

Hiru hilabetez luzatuko dira obra horiek. Epe horretan trafiko aldaketak egongo dira zonaldean.

Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoak sustatutako proiektua da hau. Garrantzi bereziko lana izango da udalerrientzat, izan ere, Loiola-ko araztegiarekin konektatuko baita gure sameamendu-sarea.

Ondorioz, ez da Oriabianchi ibairaren isurketarik egingo eta ibaiaren kalitatea eta haren ingurunea hobetuko dela aurreikusten da.

Horregatik, Lasarte-Oriako Udaleko alkatetzak barkamena eskatu nahi du eremuan sortu daitezkeen eragozpenengatik. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publikizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com, itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Zumaiako San Pedro abesbatza ostiralean V. Musika Topaketetan

Ostirala honetan, arratsaldeko 19:23:00ean, musika korala izango da protagonista, berriro ere Danok Kidek antolatzen dituen Musika Topaketetan barruan.

Oraingoan Zumaiako San Pedro abesbatza da izango da Ama Brigitarren komentuko kapera ahotsen doinuaz beteko duena.

Egitaraua

Amaia Aldalurrek, Lasarte-Oriako Musika eskolako irakasle ohiak, zuzendutako abesbatzak euskal doinuak,

herrikoiak eta sakroak eskani-ko ditu, hala nola, Duruffe-ren *Ubi Caritas*, Javi Bustoren *Axuri Beltza* edo Serraten *Cantares*. Eta horietako batzuetan, Mari Karmen Azpeitiaren laguntza izango dute teklatuan.

San Pedro abesbatza

1984. urte arte San Pedro Abesbatzak parroikiko liturgian soilik hartzen zuen parte. Ordutik hona, lan hau utzi gabe, musikaren beste arloetan lan egin du.

Nazioarteko hainbat lehiaketeta eta jaialdian parte

hartu du. 2009. urtean Errenterriako Gabon Kanten Lehiaketan 1go saria lortu zuen.

Azkoitiko *Cavaille-Coll* organoaren mendeurrenean herri horretako abesbatzarekin eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin batera Mozarten *Koroatze Meza* lana eskaini zuten. Bat baina gehiagotan Gabriel Faureren *Requiem*a abestu dute eta 2002. urtean Zumaiako Bandarekin Jesus Guridiren *Eusko irudiak*.

San Pedro abesbatzak Euskal Herriko hainbat herrietan kontzertuak eskaini ditu. •



Arg: myspace.com/lurbiraopera

Agote baten istorio musikatu ezagutzeko aukera dago gaur kultur etxean.

Haurrentzako ipuin musikala gaur kultur etxean

Lurbira Òpera taldeak musika eta antzerkia ekarriko du gaur arratsaldeko 18:00etan Manuel Lekuona Kultur etxera.

Kutzak babestutako ekimen hau kontzertu pedagogikoa dugu eta kultur etxera gerturatzen diren herritarrek ipuin berezibat ikusteko aukera izango dute, *Euskal ipuin bat*, hain zuzen ere.

Haurrei zuzendua

Ikuskizun hau haurrak, musika klasikoaren eta kantu lirikoaren mundura hurbiltzeko asmoz sortua da.

Izan ere, genero hori itxuraz elite baten eskura dago soilik eta ulergaitza dirudi askorentzat.

Horregatik, kontatzen ari diren istorioa haurrek hobeto

ulertzeko, Lurbira Òpera taldeko lagunek kantatutako eszenak eta hitz egindakoak tartekatuko dituzte musikal modura.

Istoria

Aita Donostiak harmonizatutako abesti herrikoietan oinarritutako lana da *Euskal ipuin bat*.

Eta istorioari dagokionez, ihesean Behe Nafarroako herri batera iritsi den agote baten bizipena azaltzen du.

Haserre dago agoteek herrietan jasaten duten bazterkeriarekin eta bidegabeberiekin.

Mendekua hartzeko prest dago, eta inguruko emakume guztiak liluratzen saiatuko da ahalik eta ondorengo gehiago edukitzeko. •



Zumaiako San Pedro Abesbatzak parte hartuko du ostiralean Danok Kidek antolatutako V. Musika Topaketetan.

Larunbateko afari mejikar-begetarianoarekin amaitu ziren XII. Jardunaldi Internazionalistak

Larunbat gauean Xirimiri elkartearen eman zioten jardunaldiei amaiera afari mejikar begetariano batekin. 30 lagun inguru bildu ziren Xirimiri giro ederrean afaria dastatzeko asmoz.

Antolatzaileen esanetan, aurtengo egitarauarekin oso gustura geratu dira, gauza berriak eskaini nahi izan dituzte. Salto kualitatibo bat ematen saiatu dira eta baita lortu ere. Orain arteko jardunaldietan informazioari eta sentsibilizazioari garrantzia eman izan badiote, aurtun ekintza praktikoei eman nahi izan diete, eta bide batez herritarrei alternatibak ematen ere saiatu dira. •



Antolatzaileak oso gustura eta pozik geratu dira aurtengo jardunaldiekin.

Galdera asko denbora gutxian

■ Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak herritarren kezkei erantzun zien
 ■ Kultur Etxean, ehun lagunetik gora bildu zirenez, denek ez zuten aukerarik izan

Markel Olano diputatu nagusiak bi ordu egin zituen ostegun arratsaldean Lasarte-Orian, batetik bere gobernuaren lehentasun eta asmoen berri ematen eta bestetik herriko elkarte ezberdinetako ordezkariak kezka nagusiei erantzuten. Horrela, aste batzuk barru ospitaletara autobus zerbitzua jarriko dela eta 2013rako Zubietan erraustegia egingo dela ziurtatu zuen. Ehun lagunetik gora elkartu ziren Kultur Etxean eta normalaenez denbora gutxi izan zen asko izan baitziren galderaren bat egin nahi ziotenak. Jesus Maria Zaballos alkateak, zenbait zinegotzik eta hainbat herritarrek parte hartu zuten 'Gipuzkoako Foru Aldundia Zure Herrian' izeneko ekitaldian.



Markel Olano eta Eneko Goiak euren taldearen erronka eta lehentasunen azalpenarekin hasi zuten ekitaldia.

JON ALTUNA

Herriz herri ari da Markel Olano diputatu nagusia bere agintaldiko lehentasunen berri ematen batetik, herritarren kezken berri izan eta hauen zalantzei erantzuten bestetik, eta aurreko ostegunean Lasarte-Orian izan zen Eneko Goia azpiegiturako diputatuarekin batera.

Ekitaldian izan ziren Jesus Zaballos alkatea, zenbait zinegotzi eta herriko elkarteetako ordezkariak, besteak beste auzo elkarte, erraustegiaren aurkako plataforma, Zubietako eskolako guraso, Michelingo langile eta zaharren Biyak Bat elkarteetakoak. Hauek behintzat galderak egiteko aukera izan zuten eta eztabaidaren uneren batean alkateak berak, Txanpi Baztarrika ezker abertzaleko zinegotziak eta Ricardo Ortega Ezker Batukoak ere parte hartu zuten.

Baliabide asko erabiltzen ditu Foru Aldundiak *Gipuzkoako Foru Aldundia Zure Herrian* egitasmoan, aurrez grabatutako bideoak eta bertan grabatutako irudiak tartekatuz pantaila erraldoi batean.

19:00etan hasi zen ekitaldi publikoa, aurretik herriko kazetariak solasaldia eduki zuten bi politikariek, eta 20:30ak pasa zirenean amaitutzat eman behar izan zuten ekitaldia, ordu bete beranduago zineforum saioa zegoelako. Beraz, bertan ziren batzuk galdera egiteko aukerarik gabe gelditu baziren ere, hainbat gai jorrazteko aukera izan zen: Ospitaletara autobusa, errauste planta eta zaborren kudeaketa, errepide sarea eta krisi ekonomikoa izan ziren besteak beste proposatu ziren gai nagusiak.

Markel Olano eta Eneko Goiak Diputazioaren lanari buruzko azalpenak eman

ondoren galderak egiteko aukera eman zuten. Auzo elkarte bateko ordezkariak proposatu zuen lehen kezka Lasarte-Oria ospitaleekin autobusez lotzeko aspaldikoa eskaera izan zen eta Markel Olanok maiatzaren erdialdean Ospitala-Lasarte-Zubietan-Usurbil autobusoan Lasarte-Orian izan zen Eneko Goia aurreratu zuen.

Erraustegia

Zaborren kudeaketaren gaia jorratu zuten ondorengo minutuetan, eta argi gelditu zen herritar asko zaborra errebaino beste alternatiba batzuen aldekoak direla, atez ateko biltzetan aldekoak esaterako, baina Diputazioak jarrera argia duela ere ikusi zen. Olano eta Goiak adierazi zuten Udal bakoitza zaborra biltzeko nahi duen sistema erabiltzeko libre dela, baina euren ustez zabortegia baino erraustegia sistema egokiagoa dela eta 2013an Gipuzkoako zabortegi guztiak itxia egongo direnez ordurako Zubietako erraustegi planta zabalik egongo dela ziurtatu zuten.

Era berean, 5. edukiontzia jarriko dutela aurreratu zuten zabor organikoa biltzen eta konpostatzen hasteko, helburua %10ean jarritz. Bi politikarientz Gipuzkoak birziklatze aldetik maila altua du, %42 birziklatzen da eta %46ra iritsi nahi dute.

Erraustegiaren aurkako plataformako bi ordezkariak eta Rikardo Ortega zinegotziak, eman zuten euren iritzia. Besteak beste erraustegian 400 milioi euro erabiliko direla, CO2 asko askatuko dela, herritarren kezka eta zalantzak zein 35.000 sinadura ez direla bate-re kontuan izan eta alternatibak badaudela adierazi zuten Usurbilgo adibidea aipatuz.

Azpiegituren gaiak ere sortu

“ Politikarien eta gizartearen arteko urruntasun horri nola edo hala aurre egiteko helburua du saio honek

zuen eztabaidarik, eta auzo elkarte bateko ordezkariak zenbait kontu planteatu zituen, zarataren aurkako panelak esaterako. Bere iritziz, azpiegitura, errepide eta bidegurutzet ingururata dago Lasarte-Oria baina batetik lasarteoriatarrek bizikletaz ez dauka Donostiara joaterik bidegorriak ez dagoelako eta bestetik herritar askok tren ez ere ez Oria inguruan ez dagoelako geltokirik. Horregatik Donostiako metroa egiten bada, Orian geltokia jarri eta Andoaineraingo segi dezala eskatu zuten.

Eneko Goiak erantzun zion, batetik bidegorriaren egitasmoa aurreratu daugoa eta Errekalde inguruan libre geldituko den trenbidea erabiliko dela bidegorria zabaltzeko eta bestetik metroa ez dela metro Donostialdea izango metro Gipuzkoa baizik.

Michelingo langile batek enpleguaren gainbehera plan-

teatzean Markel Olanok Jesus Zaballos-i eman zion hitza eta hau industrialde-proiektu bitaz mintzatu zen, Michelingo bat 200 lanpostu inguru sortzeko helburuarekin eta Teresategiako beste. Olanori laguntza ere eskatu zion egitasmo hauek aurrera eramateko.

Zazpi erronka nagusi

Ekitaldiaren hasieran Markel Olano eta Eneko Goiak euren politika erronken berri eman zuten. Hasteko Olanok adierazi zuenez, inkesta baten arabera gipuzkoarren %79,5ek ez dauka konfiantzarik politikarientz: "Datu deigarria da, eta gure sistemak bizi duen krisi egoera erakusten du. Urruntasun horri nola edo hala aurre egin beharrez gaude, eta saio hau helburu hori lortzeko ekintza bat gehiago da".

Olanok eta Goiak Foru Aldundiaren zazpi lehentasunen berri eman zuten: mugit-

kortasuna eta komunikazio azpiegiturak; lurralde ezberdinen arteko oreka; ingurumenaren zaintza; nortasuna sakontzea; bizikidetzat, ongi izatea eta elkartasuna; garapena eta konpetitibitatea; eta azkenik, bakea eta normalizazio politikoa.

Azpiegiturari buruz, adierazi zuten lehen erronka Gipuzkoako errotonda osatzea dela, Donostiako bigarren saihesbideko lanak amaituz. Dena den Eneko Goiak adierazi zuten ezin dela Gipuzkoa asfaltoz bete eta garapenak muga bat daukala. Aldundiaren beste apustu batzuk dira, garraio publikoa (hau bultzatzeko lurralde-bus-eko behegarapenak), tren (Abiadura Handikoa baita merkantziak garraiatzeko ere) eta bidegorriak (oraingo 100 km-tik 400 km-ra pasatuz).

Parte hartzeko aukera

Kultur Etxeko ekitaldian izan zirenei galdetegi bat pasa zitzaion. Beraz parte hartzeko eta herriko zein Gipuzkoako arazo nagusiak proposatzeko aukera izan dute. Foru Aldundiak aitortu du emaitzak publikoki aurkeztuko direla eta kontuan izango dituela etorkizuneari.

Galdetegi horrez gain, www.zureherrian.net webgunea eta kabinetea@gipuzkoa.net posta elektronikoa ere herritarren eskura daude euren iritzia eman eta ekarpenak egin ditzaten. Informazio hori zabaltzeko beste zenbait kanal ere ireki dira: Facebook, Twitter edota Youtube esaterako. Horrela, Lasarte-Oriako saioaren zuzeneko jarraipena egin zen Twitter-en, #zureherrian etiketaren bidez. •



Zuzeneko eta aurrez prestatutako irudiak erabiliz ekitaldi dotorea burutu zuten.

Egunero

Erakusketa

SU LAZTANAK, Garikoitz Lasaren egurrean egindako pirograbatuak ikusgai Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar. Ikusgai dauden lanak salgai ditu.



Erakusketa

PINTOREAREN ESTUDIOKO IKASLEEN margoen erakusketa hila-reen amaiera arte. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara

Astelehena, 19

Kontzertua

EUSKAL IPUIN BAT izeneko kontzertu pedagogikoa. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.

Asteartea, 20

Hitzaldia

ERAKUTSI BEHAR AL ZAIE SEME-ALABEI KONPARTITZEN? hitzaldia eskainiko du Pilar Seminariok Udaren Sanitateko Departamentuak antolatuta. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan. GAZTELANIAZ.



Laburbira film laburren zirkuituaren emanaldia Jalgin

LABURBIRA, Film laburren VII. Zirkuitua Topagunearen eskutik. Honako filmak eskainiko dira: Ahate pasa, Zorion hutsa, Nora zoaz, Clark & Boris, Odisea etxealdean, Kameratoia, Esaiok eta Amona putz.

APIRILAREN 22AN, OSTEGUNA
JALGIN 21:00ETAN
EUSKARAZ

Osteguna, 22

Hitzaldia

KUDEATUZ egitasmoko 3. bilera egingo da. Bilera hau Osasun Zentroko 3. solairuko balio anitzeko gelan, 18:30ean.

Ostirala, 23

Liburuaren eguna

Nazioarteko Liburuaren eguna ospatzeko Landaberri BHI institutuko aurreko plaza hainbat ekitaldi egingo dituzte 12:00etatik aurrera.

Kontzertua

Zumaiaiko SAN PEDRO ABESBATZAREN emanaldia Danok Kidek antolatzen duen V. Musika Topaketan barruan. Brigitarren komentua, 19:30ean.

Kontzertua

URKO MENAIAREN kontzertua, folk eta pop estikoak jorratzen ditu. Jalgin, 23:00etan.

Larunbata, 24

Antzerkia

TXIRULARI MAJIKOA haurrentzako antzezlan Teatro Paraiso taldearen eskutik. Sarrera 3,15 euro. Kulturetxean, 18:00etan. EUSKARAZ



Igandea, 25

Zinea

LILY, LA PRINCESA HADA haurrentzako filma ikusgai. Sarrera 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.



Osteguna, 29

Zinea

CELDA 211 filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera 4,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30etan. GAZTELANIAZ



Ostirala, 30

Dantza

HNUY ILLA dantza ikuskizuna Kukai Tanttaka taldeen eskutik. Sarrera 6 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan. EUSKARAZ

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzte ostiralero 9:45etik 11:45era Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Liburutegiko ordutegia



Manuel Lekuona kulturetxea

Astelehenetik ostiralera
10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 21:00era
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Oharrak

Udako Txokoetan begirale izateko

Haurrak gustuok dituzten gaztetxoek Udako Txokoetan begirale izateko aukera eskaitzen die Ttakun Kultur elkarteak. Apirila eta maiatza bitartean zabalik izango da begirale moduan aritzeko izena emateko epea. Begirale izateko baldintza bakarrak 18 urte baino gehiago izatea eta euskara maila txukun bat edukitzea da. Begiraleak aukeratzeko proban, begirale titulua, esperientzia eta hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak edukitzea hartuko dira kontutan eta puntuazio bidez aukeratu dira.

Izen-ematea Ttakunen egin behar da (Geltoki kalea 4) eta informazio gehiagorako deitu 943 371 448 telefonora.

Marrazketa eta margo eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarrekin antolatzen duen marrazketa eta margo eskolan plazak badaude. Izena emateko jo kulturetxeko 2. solairura 18:00etatik 19:00ak bitartean, astelehenetan, ostiraletan eta larunbat goizetan 09:30etik 11:30era.

60ko kinto afaria

Dana Ona jatetxean ospatuko da maiatzaren 29an 60ko kintoen afaria. Izena emateko azen eguna maiatzaren 5ean izango da. Pertsona bakoitzak 50 euro ordaindu beharko ditu eta diru hori Kutxako 21010048200012568275 kontuan sartu behar da. Informazio gehiagorako interesatuek 943 370980 telefonora

deitu (Maria Luisa).

Errugby eskola

Beltzak-Ostadar Errugby eskola martxan jarri zen otsailean. Geroztik, igandero, goizeko 09:00etatik 10:30 bitartean entrenatzen dute Michelinek.

Errugby eskolako antolatzailerak Lasarte-Oriako ikasle guztiak gonbidatzen dituzte honetan parte hartzera.

Udaltzainek jasotako gauzak

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkata jasota, urrezko eskumuturrekoa, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilakarioa, Festina markako eskumuturreko erlojua, Suzuki markako motozikleta kaskoa,

zilarrezko belarrirakoak, betaurreko graduatuak eta betaurreko graduatuak bere estutxean.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hila-beteko epean jaso behar dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Estudio del Pintor eskolako ikasleen lanak kultur etxean

Lau urte pasa dira jada David Iturbek herrian *Estudio del Pintor* ireki zuenetik. Lan ezberdinetan jardun eta gero, David, irakasle izan nahi, hori gustukoa zuela konturatu eta lan hone-tan murgildu zen.

100 ikasle inguru pasa dira lau urte hauetan bere estudiotik, eta adin oso beste-lakoak zituztenak gainera. Margoak ez dauka adinik, 6 eta 65 urte bitarteko ikasleak izan ditu.

Margoaren teknikak erakustea du Davidek helburu, margoa espazioan kokatzea, tridimentsionalitatea, itzalak eta bolumena nola irudikatu behar diren bere ikasleei helaraztea.

35 ikasle daude momentu hauetan margoaren munduan murgilduta Estudio del Pintorren. Ikasleen gehiengoak hel-duak dira "argiago daukate margotzen ikasi nahi dutela gazteak baino" adierazten digu Davidek. Margotzen ikasten denean ondo pasatzea da garrantzitsua "jarraipen bat ematea eta kontent aritzea" gaineratzen du.

Margo munduan barnera-tzeko ez da beharrezkoa mar-gotzen jakitea "probatzeko grina baizik" dio Davidek. Estudioan jende ugari dago pintzela inoiz hartu gabe hur-bildutakoak eta gustura dabil-tzanak "margotzeak lasaialdia eskaintzen du eta sozializazio faktore bat ere bada, jendea ezagutzeko aukera eskaintzen duena gainera".

Pazientzia lortzen ikasten

Egun batetik bestera margo-tzen ikastea ezinezkoa da, beraz, "kurto hauen bitartez pazientzia eta positibismoa edukitzen ikasten da" aipa-tzen du Davidek "pazientzia eta gogoekin gauza asko egin daitezke" gaineratzen du.

Artista ugari dagoela herrian ezin da ukatu; abeslariak, dantzariak, aktoreak, pailazoak, margo lariak... Artista guztiak dute gogoko beraien lana publiko zabalarri erakustea, beraien kreaizoa itzaletan geratu ez dadin. Oraingoan, Estudio del Pintorreko ikasleak eginda-ko lanak ikusteko eta disfrutatze-ko aukera izango dugu. 40 koadro inguru daude ikusgai Manuel Lekuona kultur etxean ostiraletik. Estudioan ari diren ikasle gehienek obrak ikusteko modua izango duzue, eta baita beren eboluzioa antzemateko. Ez galdu aukera, mar-golari afizionatuek euren artea erakutsi nahi digute eta. Hilaren amaiera arte izango duzue aukera.



David margolaria Manuel Lekuona ikusgai edukiko duen bere obrarekin paratuta Lasarte-Orian duen estudioan

Oleoa nagusi

Oleoa, akrilikoa, ikatz-ziri edo lapitza teknikak erakus-ten badie ere "ikasle gehienek oleo teknika dute gustukoena. Esker oneko teknika dugu, beranduago lehortzen denez, zuzendu daiteke" dio Davi-dek. Kultur Etxean jarri duten erakusketan beraz, oleoak nagusi izango dira.

Imajinarioari eragiten

Gai zehatz bati jarraitu gabe, ikasle bakoitzak bere barneko desioei jarraiki sortu du era-ikusgai jarriko duen koadroa "gustura margotzeko bakoitzari burura etortzen zaiona margotzea da hobere-na" dio Davidek. Izan ere, "margoa adierazpide bat da" gainera-tzen du.

Lana eta gero...

Ordu asko sartu eta gero, azkenean euren lanaren fruituak erakutsiko digute Estudio del Pintorreko ikasleak. Bi hilabetez burututako lana, ikusleen juzkuen zain ditugu ostiraletik aurrera. Ez galdu aukera, eta hurbildu zaitez! •

Itxaso MORENO

Udan margotzen ikasi

Talentu ezkuturen bat izango al du zure seme-alabak? Margoa izan dai-teke! Horrela dela baieztatu nahi baduzu aurten, udan, dute aukera paregabea. Bestela ere, kurto interesgarria eta ondo pasatzeko aukera proposatzen die Davidek herriko gazteenei.

Bai abuztuan bai uztailean astelehenetik ostiralera margoaren mamiak barneratze-ko aukera izango dute etxe-ko gaztetxoek.

Egunean ordu betez margoak ezkatututako sekretuak ikasteko aukera izango dute, eta gainera prezio neurridun batean, hilabetea 50 eurotan.

Oporretara joateko asmoa duzuela eta beraz, hilabete osoan zehar ikas-tarua ezingo duela egin zure seme-alabak? Lasai, hilabete erdia joateko aukera ere izango dute.

Udan ez zaitez paratu-ta gelditu! Kirola, udale-ku, margoa, denetarako denbora duzu gaztetxo! •

Luci B.S., Estudio del Pintorreko ikaslea

"Egin nuen lehenengo koadroa munduan jaso dudan opari bereziena izan da"

Luci duela bi urte eta erdi hasi zen Estudio del Pintorren. Margoaz inolako jakintza gabe hasi da mundu honetan barneratzen, eta egun eman dituen aurrera-pausoak nabariak dira oso. Gaur Manuel Lekuona kultur etxean jarriko den erakusketan bere bi lan izango ditugu ikusgai.

Nola sartu zinen margoan?

Ez nengoen nire bizitzaren momentu onenean, depresio batean murgilduta nengoen

eta ingurukoak gauzak egite-ko aholkatu zidaten. Denbora bete behar nuen, eta margoak asko lagundu zidan. Ezer ez jakin gabe hasi nintzen, ez zitzaidan inoiz burutik pasa egun egitera iritsi naizena egi-teko gauza izango nintzenik.

Zer sentitu zenuen lehenengo koadroa amaitzerakoan?

Munduko oparirik handiena izan zen niretzako. Paisai bat zuhaitza eta errekarrekin zen. Hori egiteko gai nintzela ikus-tea zoragarria izan zen.

Nola ikusi duzu zure ebolu-zioa?

Salto handia eman dut hasi nintzenetik. Pertsonalki eta trebezian. Sari handia da zure kreaizoa ikustea.

Esperientzia gomendatuko zenuke?

Noski, oso osasungarria da. Ondo pasatzen duzu, oso bestelako jendea ezagutzen duzu. Pazientzia edukitzen, eta talentu bat garatzen ikas-ten duzu gainera. Pertsona helduentzat oso gomendaga-



Margoarekiko trebezia pixkanaka lortzen dute ikasleak, pazientzia behar da

ria dela esango nuke. Etxe-tik irten eta zerbaitetan hasiz.

Zuri asko lagundu dizu...

Eta beste askori ere ondo egin dakioko. •